



EIBARKO UDALAREN ETA EIBAR RUBGY TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA.

Eibarren, 2014ko ekainaren 19an.

BILDUTA,

Batetik, MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL jauna, Eibarko udaleko alkate-udalburua,

Bestetik, Iñaki Arrizabalaga Lasa, *Eibar Errugbi Taldearen* presidentea,

Biek aitortu diote elkarri badutela egintza honetako beharrezkoa den lege ahalmena, eta

HAUXE AZALTZEN DUTE.

Eibar Errugbi Taldea 1978. urtean sortu zen talde bat da, eta urte guzti hauetan, kirol honen alde egiten eta kirol hori sustatzen jardun du gure herrian. Oinarrizko hainbat talde ditu eta senior mailako talde bat; azken horri esker, Eibar Errugbi taldea kirol honen erreferentzia bilakatu da, ez bakarrik Euskadin, baita haratago ere.

2012/2013 denboraldian, senior taldea Ohorezko B Mailara igo zenean –estatuko errugbilaritzan, zilarrezko kategoria- eta Federazioak lehiaketaren funtzionamendua aldatzeko erabakia hartu zuenean, taldeak lehen baino askoz joan-etorri gehiago egin behar izan zituen, eta, nola ez, horrek beste hainbat gastu ekarri zituen, inskripziotan eta joan-etorrietan. Benetako gastuak hasieran uste zirenak baino handiagoak izan ziren eta taldeak 25.000 euroko aurrekontu-defizita izan zuen.

Egoera ekonomiko horren aurrean; taldea desagertzeko arrisku bizian dagoenez; gaur egun 84 kirol lizentzia dituela ikusita eta multikirolak antolatzerakoan 500 mutil eta neskato baino gehiago mugitzen dituela kontuan hartuta, Udalak, 2014ko maiatzaren 14an egindako Bozeramaileen Batzarrean, 25.000 euroko aparteko laguntza ematea erabaki zuen, taldeak zuen desoreka ekonomikoari erantzuteko eta *Eibar Errugbi Taldeak* aurrera egin ahal izateko. Hartara, gure hirian, kirol hori praktikatzen jarraitzeko bidea zabaldu zen.

HAUXE ERABAKI DUTE:

1.- Eibar Errugbi Taldeak hitz ematen du: Eibarren eta herri inguruetan, kirol hori garatu eta bultzatuko duela.



2.- Eibar Errugbi Taldeak hitz ematen du: ildo estrategikoak bere baitan hartuko dituen jarduketa-plan bat egingo duela. Horren helburu nagusia aurreko paragrafoan adierazitakoa izango da: Eibarren errugbia bultzatzea edo sustatzea.

3.- Eibarko udalak hitz ematen du: egoera nolakoa den kontuan hartuta, aparteko diru-ekarpen bat egingo duela laguntza jakin edo puntual legez Eibar Errugbi Taldearen jarraipena bermatzeko.

4.- Eibarko udalak 25.000 euro ordainduko dizkio *Eibar Errugbi Taldeari*, hitzarmen hau izenpetu ondoren ordainduko duen zenbatekoa. Eibar Errugbi Taldeak bere kirol jardueren memoria entregatuko du -baita kontuen balantzea ere- jardunaldi hau amaitzerakoan. Agiri horiek ekartzeko azken eguna 2015eko urtarrilaren 31 izango da.

